**2020/05/26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 26/05/2020.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko maiatzaren 26an, arratsaldeko 17:30ean, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da ohiko bilkuran Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 26 de mayo de 2020, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria Ohikoa bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2020-02-25, 2020-03-09, 2020-04-02 eta 2020-04-30.

**2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2020ko maiatzaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 2., 3. eta 4. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

**3.- ABALA ITZULTZEKO HEMEN GARBIKETAK S.L.U. ENPRESAK EGINDAKO ESKARIA: udal eraikinak garbitzeko 2016ko kontratua.**

2016ko martxoaren 15ean egindako udalbatzarrak hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzea erabaki zuen, eta kontratu horretatik sortutako betebeharrak zuzen betetzeko bermetzat abala jarri zuen HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresak 2016ko martxoan.

Kontratuaren indarraldia amaituta, HEMEN GARBIKETAK S.L.-k abal horren kitapena baimentzea eskatu du.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, ahal batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** BANCO SABADELL banketxeak HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresaren alde jarritako abalaren kitapena baimentzea. Abal hori 12.304,70 €-koa zen, eta "Eskoriatzako hainbat udal eraikin garbitzeko" zerbitzua emateko kontratutik sortutako betebeharrak beteko zirela berme gisa jarri zen.

**Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

**4.- GIPUZKOAKO TOKI ENTITATEEN AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ALORRETAN FINANTZA TUTORETZAREN ESKUMENA GARATZEN DUEN OTSAILAREN 8KO 1/2013 FORU ARAUAREN 5-3 ARTIKULUA BETEZ KONTUHARTZAILETZAK EGINDAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluak xedatzen du aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako

gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordez, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helarazi beharko zaiola, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzailetzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2019ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidearen 3. erregelak xedatzen du arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordez, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluaren hirugarren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzarrari.

Xedapen horietan aurreikusitakoari erantzuteko, apirilaren 24an egindako txostenaren berri ematen du Kontuhartzailetzak, egoera hori ematen dela jasoz, eta erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzen duena.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzietatik 11 bertan direlarik, egindako txostena jasotzat jo du.

**5.- 5. KREDITU ALDAKETA: KREDITU GEHIGARRIAK.**

Kredituak aldatzeko 5. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailetzak egindako txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 5. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0100.227.162.10.13 2020 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA | 170.791,32 | 13.851,91 | 184.643,23 |
| 1 0100.227.162.20.13 2020 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA | 33.947,04 | 3.387,86 | 37.334,90 |
| 1 0100.227.162.30.13 2020 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMENDUA | 122.974,32 | 1.092,52 | 124.066,84 |
| 1 0400.227.340.00.13 2020 | MANKOMUNITATEA:KIROLA | 1.225,92 | 232,68 | 1.458,60 |
| 1 0500.227.432.00.13 2020 | MANKOMUNITATEA:TURISMOA | 14.516,40 | 44,76 | 14.561,16 |
| 1 0100.721.162.10.01 2020 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA | 6.027,98 | 5.871,01 | 11.898,99 |
| 1 0500.721.241.00.01 2020 | MANKOMUNTATEA:ENPLEGUA | 65,17 | 32,07 | 97,24 |
| 1 0100.622.933.00.02 2020 | BESTELAKO ERAIKIN ETA ERAIKUNTZAK | 0,00 | 28.664,83 | 28.664,83 |
| 1 0600.421.335.10.01 2020 | APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 57.352,07 | 10.906,00 | 68.258,07 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | 406.900,22 | 64.083,64 | 470.983,86 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2020 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO | 64.083,64 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **64.083,64** |

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

**6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2020 lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**7.- GAI ZERRENDAN ONDORENGO GAIA SARTZEA BERRESTEA: herriko jai eguna 2021erako.**

Aho batez onartu da gaia gai zerrendan sartzea berrestea eta 2021eko ekainaren 29a herriko jai egun bezala izendatzea 2021erako.

**8.- GALDE-ESKEAK.**

Eluskak adierazi du herritarren artean mota guztietako komentarioak eta zurrumurruak entzuten direla COVID-19ak eragin duen krisi ekonomikoak gehien kaltetu dituen kolektiboei Udalak ematea planteatzen dituen laguntzen inguruan, eta zurrumurru horiek, nahasmena eta gaizki-

ulertuak sortu besterik ez dutenak egiten, argitze aldera, zer asmo dauden publikoki argitzeko eskatu du.

Josu Ezkurdiak ondorengoa erantzun dio:

*Bat gatoz zalantzarik ez sortzeko proposamenak era ofizialean edo publikoan egin behar direnarekin, eta zuek dakizuen bezala, horrela egiten ari gara, bai batzordeetan, bai egindako bilera ofizialetan.*

*Bestalde, eta aurreratu genuen bezala, laster aurkeztuko dugu Eskoriatza post-covid programa, 5 ardatzetan oinarritzen dena:*

1) *osasuna bermatzeko, 2) gehien behar dutenei laguntzeko, 3) bertako ekonomia sustatzeko, 4) Eskoriatza Bizirik ekimena herriko bizitza sozial eta kulturala berpizteko, eta 5) klima aldaketaren kontrakoa proiektuak garatzeko.*

*Azkenengo horiek, pandemia hasi eta gero eten egin genituen, baina ez ditugu baztertu nahi, eta martxan jartzeko diru kopuru batzuk gorde beharko ditugu.*

*Berreraikuntza programa eta 5 ardatzak osatutako ekintzak gauzatu ahal izateko, aurtengo udal aurrekontuak eguneratzen ari gara: gastu arrunta murriztuko dugu eta gerakina erabiliko dugu gure herriak izango dituen erronkei aurre egiteko.*

*Plangintza hau ekainean izango dugun ogasun batzordean aurkeztuko dugu eta zuen eta Elizateko taldearen ekarpenak ongi etorriak izango dira.*

Gai horiek argitu ondoren, Eluskak galdetu du ea asmoa den establezimenduek norbera babesteko ekipoak erosteko laguntzaren bat deitzea.

Josu Ezkurdiak erantzun dio lehenik eta behin udal-langileekin lotutako prebentzio-neurriak hartzen ari direla , eta, gero, esparru horretan egoki iritzitako laguntzak emango zaizkiola behar duenari.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 17:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2021/01/2922:38:50

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2021/01/2915:17:08

**1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fecha 25/02/2020 , 9/03/2020, 02/04/2020 y 30/04/2020.

**2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las Resoluciones de la Alcaldía dictadas hasta el día 19/05/2020.

De forma expresa se da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos Nª 2, Nº3 y Nº4

**3.-SOLICITUD DE DEVOLUCIÓN DE AVAL CURSADA POR HEMEN GARBIKETAK S.L.U.: contrato de 2016 de limpieza de edificios municipales**

En marzo de 2016 HEMEN GARBIKETAK S.L. depositó aval en garantía del correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de limpieza de diversos edificios municipales de Eskoriatza, adjudicado por acuerdo plenario de fecha 15 de marzo de 2016.

Finalizada la vigencia del contrato, por HEMEN GARBIKETAK S.L. se solicita se autorice la cancelación de dicho aval.

Visto el informe emitido por los servicios técnicos y la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero:** Autorizar la cancelación del aval emitido por el BANCO SABADELL a favor de HEMEN GARBIKETAK S.L. , por un importe de 12.304,70 € en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de "limpieza de diversos edificios municipales de Eskoriatza.".

**Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval al propio interesado al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

**4.-DAR CUENTA DEL INFORME EMITIDO POR INTERVENCION EN CUMPLIMENTO DEL ART. 5-3 DE LA NORMA FORAL 1/2013, DE 8 DE FEBRERO, POR LA QUE SE DESARROLLA LA COMPETENCIA DE TUTELA FINANCIERA EN MATERIA DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA DE LAS ENTIDADES LOCALES DE GIPUZKOA**

La Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa, en su artículo 5 dispone que, en el caso de que el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, el plan económico- financiero se sustituirá por la comunicación al Pleno de la entidad de un informe de Intervención constatando tal circunstancia, y en el que se analice y evalúe la sostenibilidad financiera de la entidad.
La regla 3ª de la Instrucción que recoge las reglas que las entidades locales de Gipuzkoa deberán seguir en la elaboración, aprobación y ejecución de los presupuestos del año 2019 dispone que, en caso de que el incumplimiento de la regla se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, dicho plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista en el apartado tercero del artículo 5 de la Norma Foral 1/2013.
Con el objeto de dar respuesta a lo previsto en dichas disposiciones, por Intervención se da cuenta del informe emitido en fecha 24 de abril constatando tal circunstancia, y en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera de la entidad.

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, toma cuenta del informe emitido

**5.-MODIFICACIÓN DE CREDITOS Nº5: CRÉDITOS ADICIONALES**

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº 5, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO.**

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con el voto a favor de todos corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 5 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

| Partida de gasto | Concepto | Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Actual | Modificación | Definitivo |
| 1 0100.227.162.10.13 2020 | MANCOMUNIDAD: RECOGIDA DE RESIDUOS | 170.791,32 | 13.851,91 | 184.643,23 |
| 1 0100.227.162.20.13 2020 | MANCOMUNIDAD: GESTIÓN DE RESIDUOS | 33.947,04 | 3.387,86 | 37.334,90 |
| 1 0100.227.162.30.13 2020 | MANCOMUNIDAD: TRATAMIENTO DE RESIDUOS | 122.974,32 | 1.092,52 | 124.066,84 |
| 1 0400.227.340.00.13 2020 | MANCOMUNIDAD: DEPORTE | 1.225,92 | 232,68 | 1.458,60 |
| 1 0500.227.432.00.13 2020 | MANCOMUNIDAD:TURISMO | 14.516,40 | 44,76 | 14.561,16 |
| 1 0100.721.162.10.01 2020 | MANCOMUNIDAD: RECOGIDA DE RESIDUOS | 6.027,98 | 5.871,01 | 11.898,99 |
| 1 0500.721.241.00.01 2020 | MANCOMUNIDAD: EMPLEO | 65,17 | 32,07 | 97,24 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.622.933.00.02 2020 | OTROS EDIFICIOS Y CONSTRUCCIONES | 0,00 | 28.664,83 | 28.664,83 |
| 1 0600.421.335.10.01 2020 | APORTACIÓN:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 57.352,07 | 10.906,00 | 68.258,07 |
| | | | | |
| | **TOTAL** | 406.900,22 | 64.083,64 | 470.983,86 |

| Cod. | Partida | Concepto | Cantidad |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2020 | REMANENTE TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 64.083,64 |
| | | | |
| | | **FINANCIACIÓN TOTAL** | **64.083,64** |

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**6.-INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al primer trimestre de 2020.

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**7.- ACUERDO SOBRE INCLUSION DE ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DIA: Festivo local para 2021.**

Por unanimidad se acueda ratificar la inclusión del asunto dentro del orden del día y fijar el 29 de junio de 2021 como festivo local para el año 2021.

**8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Eluska manifiesta que entre los vecinos del municipio se oyen comentarios y rumores de todo tipo en relación a las ayudas que el Ayuntamiento platea dar a los colectivos más afectados por la crisis económica que ha causado el COVID-19, y en aras a esclarecer esos rumores que, dice, no hacen mas que generar confusión y malos entendidos, solicita se aclare públicamente qué intenciones hay.

Josu Ezkurdia responde lo siguiente:

*"Coincidimos en que las propuestas deben hacerse de forma oficial o pública para no generar dudas, y como vosotros sabeis, así lo estamos haciendo tanto en las diferentes comisiones como en las reuniones oficiales mantenidas.*
*Por otro lado, y tal y como adelantamos, próximamente presentaremos el programa Eskoriatza post-covid, basado en 5 ejes:*
*1) para garantizar la salud, 2) para ayudar a los más necesitados, 3) para fomentar la economía local, 4) iniciativa Eskoriatza Bizirik para reactivar la vida social y cultural popular y 5) para desarrollar proyectos contra el cambio climático.*
*Estos últimos fueron interrumpidos tras la pandemia, pero no queremos descartarlos, y para ponerlos en marcha tendremos que guardar algunas cantidades.*
*Con el fin de posibilitar el programa de reconstrucción y las acciones compuestas por 5 ejes, estamos actualizando los presupuestos municipales de este año: reduciremos el gasto corriente y utilizaremos el remanente para hacer frente a los retos de nuestro país.*
*Esta planificación la presentaremos en la comisión de hacienda en junio y vuestras aportaciones y las del grupo de anteiglesias serán bienvenidas."*

Tras aclarar dichas cuestiones, Eluska pregunta si se piensa convocar algún tipo de ayudas destinadas a la compra de EPIs por parte de los establecimientos.

Josu Ezkurdia le responde que en primer lugar se están adoptando medidas preventivas en relación al personal municipal y que luego se tratará de prestar en dicho ámbito las ayudas que se consideren oportunas a quien lo necesite.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:50 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**